

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

IES LAUDIO BHI

Ikastetxearen kodea:

010351

Data:

2023(e)ko ekainaren 16(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Laudio BHI 700 lagunetik gorako ikasle eta langile komunitatea da. Ikastetxearen hezkuntza eskaintzari dagokionez DBH eta Batxilergoko hiru modalitatez gain LH-ko erdi mailako zikloa (Estetika eta Edergintza) eta Oinarrizko LHko Estetika eta Ile-apainketa zikloa eskaintzen dira.

Ikasleen ezaugarriei dagokionez, beste ikastetxe askotan dagoen ikasleriaren ezaugarri beretsuak ditu gureak ere. Jakina, baditugu ikasle konplikatu eta arazo iturri direnak, edota arreta berezia eskatzen dutenak eta gurean etxean topatzen ez dituzten euskarri eta ulerkortasuna aurkitzen dutenak

Familiak "klase ertain" delakoko kideak dira oro har, bizibide duina seme-alabei eskaini ahal dietenak, ugarik industria-sektore nagusietako gorabeherak bizitzen ari direnak. Ikastetxearen irakaskuntza arautuaren osagarri familia ugarik kultura, kirol jarduerak, klase partikularrak...eskaintzen dizkiete euren seme-alabei, behar diren baliabide ekonomikoak eta sentsibilitatea izanik.

Eskualdean langabezia maila altua da eta baliabide ekonomiko urriak dituzten familiak ez dira gutxi, agian beste ikastetxe batzuetan baino gehiago pilatzen dira. Familia horiek pairatzen duten baliabide urritasuna leuntzeko ikastetxeak hainbeste tresna ditu aktibatuarik: Hedatze, tutoretza pertsonalizatuak eta Bidelaguna programak kasurako.

Irakaskuntza digitalean proba asko gainditzen joan gara, eta indarguneak bezala ahulguneak ere azaleratu dira. Jakin badakigu zenbait ikasle-familia ditugula arrakala digitalena erortzeko arriskuan daudenak. Irakasleen artean erronka zail horri erantzuten saiatzen ari gara eta bide horretan segituko dugu.

Ikastetxearen egoera aztertzerakoan agerikoa da parte hartzen ari garen proiektu desberdinen onerako eragina: HNP, Hezkidetzak, Agenda 2030 eta Erasmus+.

Hala ere, jakitun gara tresna berriak ere gehitu behar ditugula prestakuntza arloan hau guztia indartzeko. Gure balio utziezinen artean baitaude euskararen erabilera eta euskal kulturaren transmisioa, berdintasunaren aldeko lana eta diskriminazioaren kontrakoa, ikasle -persona- euskaldun eta eleanitzak heztea, herriko bizitzan partaide direnak, eta herriari ekarpena egiten dietenak.

Familien inplikazioa egun oso txikia dela jakitun gara, eta estrategiko iruditzen zaigu indartzea. BHn, LHrekin elkartuta behintzat, suertatzen den "guraso dimisioari" aurre egin nahi diogu, Guraso Elkartea sendotu... Ikasleen esparruan beste hainbeste; ikasleen ahots eta iritzi gehiago entzun gura ditugu.

Azpiegiturak

Gure ikastetxearen hornikuntza teknologikoari dagokionez hauek izango lirateke aipagarrienak:

- Gela arruntetan: Arbela digitala eta eramangarria.
- Bi informatika gela 27 ordenagailurekin
- Ikasle bakoitzak bere eramangarria
- 80 eramangarri irakasleentzat
- Familiekin harremanetarako (mezuak, notak, ikasleen hutsegiteak...) INIKA plataforma erabiltzen dugu.
- Irakas-ikas jarduetarako Google Workspace plataforma.

Honek guztiak mantenimendu lan-karga handia suposatzen du, gainera mantenimendu lanetarako ikastetxeak ez dauka berariazko ordu krediturik. Beraz, Hezkuntza Sailak ikastetxeari ikasturtero irakaskuntza jarduetarako egokitzen dizkion orduetatik atera behar izaten dira mantenimendurako orduak. Nabarmenezkoa da gure kasuan gainkarga bat daukagula bi eraikin bait ditugu, bi intranetekin eta bi eraikinen arteko distantzia fisikoa nabarmenarekin.

Wifi konexioa orokorrean ona dela esan dezakegu, baina baditugu ikastetxearen gune batzuk non Wifi seinalerik ez den heltzen. Azpiegitura honen mantenimendu lanei dagokionez ere deigarria egiten zaigu ikasleen eramangarrien kudeaketa ere gure gain hartu behar izateak. Eramangarri horien matxurak, konponketen fakturak, familiekin harremanetan jarri beharrak... denbora asko eramaten digu.

Laburbilduz, azpiegituretan aurrera pauso nabarmena izan dugun arren azken urteotan (bai kantitate eta bai kalitate aldetik) horrekin batera etorri behar den mantenimendu lanetarako ordu kopuruaren esleipen egokia ez da eman, eta ikastetxeak bere gain hartu behar izan du lan hori.

Proiektuaren justifikazioa

Azken urteetan hezkuntza-prozesuak hobetzeko hainbat baliabide, tresna eta zerbitzu digital ezarri eta egonkortu dira ikastetxeetan. Audio BHI beti izan dugu argi baliabide hauen kudeaketa eta aprobetxamendu egokirako planteatu diren proiektu guztietan parte hartzea beharrezkoa zela, hala nola Premia, IKT Ikastetxe Eredua eta, azkenengoa, Sare Hezkuntza. Proiektu guzti hauek ondorio bezala ekarri digute irakasleen prestakuntza eta etengabeko formakuntza eguneratzea, IKTen erabilera areagotzea, beste ikastetxe, tokiko erakunde eta elkarteekin harremanak eta lankidetzak sustatzea.

Bestalde, **2022-2023 Ikasturtearen Antolaketa Bigarren Hezkuntzako Institutuetan**, ebazpenean agertzen den bezala *“Ikastetxearen Proiektu Digitala IHParekin eta ICParekin lerrokatua egongo da. Ikastetxe guztiek Ikastetxearen Proiektu Digitala egingo dute 2023ko ekainaren 16rako eta Hezigunera igoko da. Ikuskaritzak ziurtatuko du proiektua eperako egingo dagoela eta Berritzegune Nagusitik aztertuko da edukia, proiektuok balidatze aldera. IPDa egiteko Digitalizazio Batzorde bat osatuko da, IPDaren egite prozesua dinamizatzeko eta koordinatzeko eta eguneratua mantentzeko. Horretarako, ikastetxeek hainbat tresna eta laguntza izango dute eskura: gida, on-line laguntza, Mentoreen Sarearen aholkularitza. “*

Ikastetxearen Digitalizazio Plan honek ikastetxearen eta hezkuntza komunitateko sektore guztien gaitasun digitala hobetzeko jarduerak jasotzea proposatzen du. Bai ikasgelan zein ikasgelatik kanpo gertatzen diren hezkuntza-prozesuak hobetzeko, bai ikastetxeak bere helburuak betetzen laguntzen duten prozesuetarako.

Plan hau ondorengo helburuak lortzeko lagungarria izango da:

- Ikastetxearen egoera ebaluatzeko, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerari dagokionez.
- Plan Digital batek hezkuntza-erakundearen estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.
- Zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea.
- Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak inplikatzeko ikastetxeko kultura digitala garatzeko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Elaborazio prozesuaren lehen urratsa Digitalizazio Batzorde baten eraketa izan da, zuzendaritzako kide bat eta 6 irakaslez osatua. Batzorde hau beharren arabera bildu izan da, astero, hamabostero edota hilero.

Plan honen elaborazioan honako pausuak eman dira:

- Diagnostika (SELFIE), gaur eguneko egoeraren analisia, egin
- Emaizten azterketa, gogoeta eta ondorioak ...
- Ideia nagusiak (helburu orokorrak eta azpi-helburuak) jaso eta lehentasunak zehaztu
- Helburuak lortzeko planifikazioa diseinatu: ekintzak, denboralizazioa, ardurak ...
- Proiektua iraunkorra eta bizia izan dadin, planifikazioa ebaluatzeko eta hobekuntzak egiteko tresnak ezarri.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxearen Digitalizazio Plana testuinguru zabalean kokatu behar da, horregatik beste dokumentu garrantzitsuekin bat etorri eta jasota egon behar da, hala nola ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Zuzendaritza Proiektuan eta Urteko Plana bezalako dokumentuetan.

Azken urteetako Urteko Plan guztietan hartu izan da kontuan Ikastetxearen Digitalizazioaren hobekuntza, Urteko Plan guztietako helburu finko bat bilakatu delarik. Are gehiago, egungo Zuzendaritza Proiektuan ere jasota agertzen da helburu bezala: **“IKTen erabilpena bultzatzen duten jarduerak indartzea irakaste-ikaste prozesuan kompetentziak eskuratzen laguntzeko.”**

Beraz, zalantzarik gabe proiektu hau ikastetxeko beste dokumentu guztien osagarri bilakatuko da.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

Errealitatearen azterketa egiteko erabilitako lehen tresna SELFIE-a izan da. Zuzendaritzak, irakasleriak eta ikasleriak erantzundako galderen azterketa horretatik aipatu behar dugun lehen datua parte hartzarena izan da: zuzendaritzaren %67, irakasleen %77 eta ikasleen %84-k parte hartu du.

SELFIE txosten hau, oinarri ona izan daiteke indarguneak eta ahuleziak identifikatzeko, emaitzak interpretatzerakoan kontuan hartu dugu arlo, atal edo galdera batzuetan ondoko hauek egon diren ala ez:

- Emaidza baxuak
- Emaidza altuak
- Emaidza-desberdintasun esanguratsuak erabiltzaile-taldeen artean.

Lidergoa: Arlo honetan, denbora faltagatik, irakasleek beraien metodologian teknologia digitala txertatzeko daukaten ezintasuna da nabarmentzekoa, baita ere ikastetxearen estrategia digital baten falta.

Kolaborazioa eta sareak: Teknologia digitalak irakaskuntzan txertatzeak suposatzen duenari buruzko hausnarketa botatzen da faltan: zer aurrerapauso suposatzen duen, zer abantaila-desabantaila dituen... Hau da, ez dugu ebaluatzen egindakoa. Bestalde, kanpoko erakundeekin elkarlanean aritzeko teknologia digitalak tresna baliagarriak iruditzen zaizkigu.

Azpiegitura eta ekipamenduak: Arlo guztietatik hau da ondoen baloratutakoa: Interneterako sarbidea, gailu digitalen eskuragarritasuna eta arazo teknikoaren konponketak puntuazio altua jaso dute. Aldiz, espazio fisikoaren faltak eta urruneko irakaskuntzak sortzen duen erronkak arduratzen gaitu gehien.

Etengabeko prestakuntza profesionala: Hemen, irakasleek faltan botatzen dute EPPa (Etengabeko Prestakuntza Profesionala) diseinatzerakoan beraien beharrak eta iritziak gehiago kontutan ez hartzea. Eta komenigarria ikusten da teknologia digitalekin irakastearekin lotutako bizipenak hezkuntza-komunitatearekin partekatzea.

Pedagogia: laguntza eta baliabideak: Irakasleen erantzunetatik ondorioztatu daiteke irakaskuntzarako baliabide digitalak bilatu, sortu eta erabiltzen dituztela. Ingurune birtualen erabilera ere zabala da. Gainera ikastetxearekin lotutako komunikazioan ere teknologia digitalak asko erabiltzen dira. Baina baliabide hauek irekiak diren ala ez galdetzerakoan kopurua jaitzi egiten da.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea: Aurreko atalean, baliabide digitalak sortu eta erabili bai egiten direla adierazi dute irakasleek baina erabilera hori ikasle bakoitzaren premietara egokitzeko edo ikasleen sormena eta elkarlana sustatzeko den ala ez galdetzerakoan emaitzak ez dira hain onak. Hare gutxiago diziplinarteko proiektuak aurrera eramateko erabilerari buruz galdetzerakoan.

Ebaluazio jarduketak: Argi dago ebaluazio tradizioaletik jarduketa sorta zabalago batera pasatzeko aurrerapausoak eman behar ditugula. Tresna digitalek ebaluazio pertsonalizatuan, autoebaluazioan, koebaluazioan eta atzeraelikaduran besteak beste, asko lagun gaitzakete.

Ikasleen konpetentzia digitalak: Ikasleen konpetentzia digitalari dagokionez puntuazio baxuena lortu duten galderak besteek egindako lana aitortzea, Interneten aurkitutako informazioa kontrastatzea, programatzen ikastea eta arazo teknikoak konpontzearenak dira.

Baina deigarria egiten da ikasleek Interneten segurtasunez, errespetoz eta arduraz jokatzten duten galdetzerakoan iritzi desberdinak daudela irakasle eta ikasleen artean. Azken hauek, beraien buruari askoz ere puntuazio altuagoa ematen bait diote aipatutako jarduketa horietan.

Laburbilduz, ondoen baloratutako arloa *Azpiegitura eta ekipamenduarena* (3.9/5 puntu) izan da, eta puntuazio baxuena *Etengabeko prestakuntza profesionala* (3.25/5 puntu) eta *Ebaluazio-jarduketena* (3.1/5 puntu) izan dira.

Galdera guztietatik punturik altuena lortu duena (4,5/5 puntu) ondorengoia izan da: **“Ikastetxean, irakaskuntzan erabiltzeko gailu digitalak daude?”**

Punturik gutxien lortu duen galdera (2,6/5 puntu):

“Ikastetxean irakasleek denbora dute teknologia digitalen bidez irakasteko modua nola hobetu aztertzeko?”

Oro har, zuzendaritza eta irakasleriaren erantzunen artean ez da alde handirik egon, galderen %16an bakarrik egon da 0,5 puntu baino alde handiagoa batzuen eta besteen erantzunetan.

AMIA analisisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Ikastetxean, estrategia digital baten falta.

Irakaskuntza digitala aztertzeko denbora falta.

Teknologia digitalak suposatzen dituen abantaila-desabantailak, arriskuak... buruzko hausnarketarik ez da egiten.

Ikastetxean, beste ikastetxe edo erakundeekin kolaborazio falta teknologia digitalaren erabilera bultzatzeko.

Ikastetxean ez dugu planik urruneko ikaskuntza-irakaskuntzan sortzen diren erronkei aurre egiteko.

EPP-ak diseinatzerakoan ez da irakasleekin eztabaidatzen teknologia digitalekin irakastearekin lotutako beharrez.

Ez dira partekatzen teknologia digitalekin irakastearekin lotutako bizipenak hezkuntza-komunitatearekin.

Hezkuntza-baliabide irekiak ez dira behar beste erabiltzen.

Teknologia digitalak gehiago erabili beharko lirakeke irakaskuntza-metodoa ikasle bakoitzaren premietara egokitzeko

Teknologia digitalak gutxi erabiltzen dira ikasleen sormena sustatzeko.

Ikasleak motibatzen dituzten ikaskuntza digitaleko jarduerak ez dira behar beste erabiltzen.

Ikasleek diziplinarteko proiektuetan parte-hartzea sustatzeko ez dira behar beste teknologia digitalak erabiltzen.

Teknologia digitalak ez ditut erabiltzen ikasleen trebetasunak ebaluatzeko ezta ikasleei atzeraelikadura (feedback) egokia emateko.

Gure ikastetxean, ikasleek Interneten segurtasunez eta era arduratsuan jokatzeko hobeki ikasi beharko lukete.

Gure ikastetxean, ikasleek Interneteko informazioa fidagarria eta zuzena den ala ez egiaztatzen hobeki ikasi beharko lukete.

Gure ikastetxean, ikasleek kodetzen edo programatzen gehiago ikasi beharko lukete.

Gure ikastetxean, ikasleek teknologia digitalak erabiltzean sortzen diren arazo teknikoak konpontzen ikasi beharko lukete.

Kompetentzia digitala hobetzeko esperientziak eta ezagutza trukatu ahal izateko momentuak behar ditugu irakaslearen artean.

Diziplinarteko proiektuetan esperientzia gutxi

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Hezkuntza Sailaren plangintza digitalaren epe ertainerako eta luzerako planifikazio eza.

Irakasleria ez egonkorra.

Internetek gizartean dakartzen arriskuak: jazarpena, pribazitate eza, iruzurrak ...

Gazteek bere bizitza pertsonalean gailu digitalen erabilera neurri gabea eta desegokia.

Enpresa teknologiko erraldoiekiko menpekotasuna.

Azpiegitura digitalak antolatzeke autonomia eza (Hezkuntza Sailarekiko menpekotasuna)

Hezkuntza Sailak eskaintzen dizkigun tresneria digitalaren inguruko jasangarritasun plangintza eza.

Familia askok komunikazio digitalerako duten gaitasun eskasa.

Koordinaziorako denborarik ez.

Aplikazio digital berriak etengabe.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Zuzendaritza-taldearen babes teknologia digitalen bidezko irakasteko modu berriak frogatzerakoan.

Ikastetxearen azpiegitura digitalak irakaskuntza eta ikaskuntzarako: gailu digitalak, Interneterako sarbidea, laguntza teknikoa, ikasleentzat gailu digitalak etxera eramateko...

Irakasleek hezkuntza onlineko baliabideak bilatzen badakite.

Irakasleek baliabide digitalak sortzen badakite.

Ikastetxean online plataformak eta ingurune birtualak erabiltzen dira.

Ikastetxearekin lotutako komunikazioan teknologia digitalak erabiltzen dira.

Orain arte egindako lana, ikastetxearen ibilbide digitalean.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Hezkuntza lege berriak digitalizazioa konpetentzia nagusizat hartzea.

Gizartearen digitalizazio orokorra.

Material didaktiko digitalen aukera zabalak eta anitzak.

Irakasleek eduki digitala sortzeko gero eta tresna gehiago eta errazagoak egotea eskura.

Ikasleek eskolaz kanpotik dakarten jakintza digitala.

Ikastetxeko zuzendaritza egonkorra.

Digitalizazio Batzorde indartsua.

Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen Moodle, Microsoft eta Google Workspace plataformak.

IGEa indartzea, lidergoa eta kudeaketa hobetuz.

Dokumentazio guztia era digitalean izatea.

Autoebaluazioaren ondorioak

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

1. Zuzendaritzaren inplikazioa ezinbestekoa da digitalizazioa konpetentzia nagusi bat dela guztiok argi edukitzeko.
2. Irakasleek eta ikasleek eduki digitalak, sortu eta erabil ditzaten ikastetxearen azpiegitura digitalak modu egokian funtzionatu behar dute.
3. Ikastetxean Digitalizazio Batzorde indartsu bat izatea garrantzitsua da egin beharreko lanak antolatu eta ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

1. Ikastetxearen estrategia digitala jasotzen duen plan bat izatea, irakasle zein ikasleen kompetentzia digitala modu argi eta planifikatu batean garatzeko.
2. Eduki digitalak sortzeko dagoen aukera zabala ezagutzeko beste ikastetxe, lankide eta hezkuntza komunitatearekin elkarlana sustatzea.
3. Guztion artean adostutako formakuntza egoki eta planifikatu bat antolatu behar da baliabide irekiak, metodologia, sormena eta ebaluazioaren hainbat alderdi landuko dituen.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Ikastetxeak erabiltzen dituen on-line tresnei etekin handiagoa ateratzea familiekiko komunikazioa hobetzeko.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

1. Teknologia digitalek eskaintzen dizkiguten abantailak aprobetxatu ikasleentzako jarduera motibagarriak sortzeko, diziplinarteko proiektuetan lankidetzan aritzeko.
2. Teknologia digitalek suposatzen dituzten arriskuei buruzko hausnarketa sakona eta formakuntza jasotzea. Besteak beste, gailu digitalen erabilera neurrigabea, enpresa erraldoiekiko menpekotasuna, datuen babesa, ikasleen harreta falta, irakurmenean eta idazmenean eragina, errespetua, intimitatea, informazio iturrien fidagarritasuna...



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
LG 1 Ikastetxearen estrategia digitala jasoko duen plan bat sortzea, batzorde digitala eta zuzendaritzaren lidertzarekin datozen urteetako ikastetxearen digitalizazioaren norabidea argi izateko.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak ikasleen gaitasun digitalaren garapena zehazten du	Bai/Ez	Bai
Ikastetxeak datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko protokolo bat du. Protokolo horretan honako alderdi hauek jasotzen dira: irudi-eskubideak erabiltzeko baimenen kudeaketa, ikastetxeko aplikazio eta baliabideetarako sarbidea duten erabiltzaileen kudeaketa, irakasleen eta ikasleen datu pertsonalen kudeaketa.	Bai/Ez	Bai
Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu eta hobetzeko. Egitura horren bidez, esperientziak partekatu, erabakiak hartzen parte hartu, ekarpen propioak edo lantaldeenak egin, prestakuntza-beharrak ezarri eta abar egingo dira.	Bai/Ez	Bai
Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-taldeak eta eskola-kontseiluak onartutako estrategia digitalaren ildo nagusiak	Bai/Ez	Bai
Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren funtzioak edo/eta zereginak AJAn eta lan-planean jasoko ditu ikastetxearen urteko planean.	Bai/Ez	Bai
Proiektu digitala hezkuntza komunitate osoak onartu du (irakasle-taldeak, eskola-kontseiluak....)	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Batzorde Digital sendo bat eratu	Batzordea	Zuzendaritza, IKT-Premia arduradunak, Berrikuntza Arduraduna	2023/10/31	Detektatua
Hezkuntza komunitatearen iritziak jasotzeko moduak erabaki	Batzordea	Batzorde Digitala	2023/11/30	Detektatua
Hezkuntzan tresna digitalen inguruan formakuntza/hitzaldia	Formakuntza	Batzorde Digitala	2023/12/22	Detektatua
Jabetza intelektuala, Datuen babesa, zibersegurtasuna, legedia, erabilera osasuntsua,... hitzaldia/formakuntza irakasle zein administrazioko langileentzat	Formakuntza	Batzorde Digitala	2024/01/31	Detektatua
Hezkuntza komunitatearen iritziak jaso	Bilerak/Inkestak	Batzorde Digitala	2024/02/29	Detektatua
Datuak babesteko, irudi-eskubideak erabiltzeko baimenen kudeaketa, zibersegurtasuna eta Interneten erabilera onargarria, eskubide digitalak bermatzeko, ikastetxeko aplikazio eta baliabideetarako sarbidea duten erabiltzaileen kudeaketa jasotzeko protokolo bat idatzi.	Dokumentua	Batzorde Digitala	2024/03/31	Detektatua
Ikasleen gaitasun digitalaren garapena bai eta konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideena ere, mailaz maila eta irteera profila kontuan izanik definitu eta jaso.	Dokumentua	Batzorde Digitala	2024/04/30	Detektatua

Ikastetxearen estrategia digitala jasoko duen dokumentua idatzi.	Dokumentua	IKT arduraduna-Zuzendaritza	2024/05/31	Detektatua
Estrategia digitala klaustroan eta OOG-an onartu	Bilera	Zuzendaritza	2024/06/21	Detektatua
Dokumentu horretan adierazitakoa ikastetxeko beste oinarritzko dokumentazioan jaso	Hezkuntza Proiektua, Curriculum proiektua, AJA...	Zuzendaritza	2024/06/21	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

II 1 Programazioetan gaitasun digitala lantzeko edukiak txertatzea, edukiak sortzeko, informazioa modu kritikoan erabiltzeko eta arriskuei aurre egiteko jarduerak txertatuz, ikasleei gaitasun digitala eskuratzen laguntzeko.

Deskriptorea	Epea	
II 1.3 Pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitalaren (GD) konparatiboa egiten da.	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Unitate didaktiko eta programaziotan ikasleen gaitasun digitalaren irizpideak txertatu dira.	Ehunekotan	%100

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Konpetentzia Digitala garatzeko jardueren ereduak biltzea (mintegika/ikasgaika)	Berritzegunea, argitalpenak, Edukien biltegiak...	IKT arduraduna	2023/12/22	Detektatua
Ikastetxeko Curriculum proiektuan eta estrategia digitalean jasotako mailaz-mailakako konpetentzia digitalaren garapena kontuan hartuz, programazioetan konpetentzia digitalaren jarduerak eguneratzea	Programazioak, Ikastetxeko estrategia digitala, Curriculum proiektua, Edukien biltegiak	Mintegi Buruak	2024/06/21	Detektatua

Helburua

II 2 Internetek eta gailu digitalen erabilerak suposatzen duten arriskuei aurre egiteko plan bat ezartzea, ikasleen jarrera kritikoa garatuz eta Internet erabiltzerakoan ahalduzko gomendioak eskainiz, beraien nortasunaren garapena bultzatuz... ikasleek pairatu ditzaketen kalte emozionalak, indarkeria egoerak eta abarrekoak ekidetzen saiatzeko.

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate digitalari, zibersegurtasunari, sare sozialen erabilerari eta Interneten erabilera kritikoari buruzko unitate didaktikoak diseinatzeko/egokitzeko. Era berean, programa bat garatu da tutoretza-saioetan ezartzeko.	Bai/Ez	Bai
Unitate didaktikoak diseinatu/egokitu ditu, datuak babesteari, identitate digitalari, zibersegurtasunari, sare sozialen erabilerari eta Interneten erabilera kritikoari buruzkoak, tutoretza-saioetan erabiltzeko programa baten arabera.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Planaren ildo nagusiak definitu	Tutoretze plana, Bizikazi ekimena, Hezkidetza Proiektua, Ikastetxeko Digitalizazio estrategia	Orientazio mintegia, Hezkidetza arduraduna, IKT arduraduna	2024/03/31	Detektatua
Plana idatzi	Dokumentua	IKT arduraduna, Orientazio mintegia	2024/06/21	Detektatua
Tutoretza planean txertatu	Tutoretza plana	Orientazio mintegia	2024/06/21	Detektatua

Helburua

II 3 Irakaslearen eguneroko lana errazteko koaderno digitalaren erabilera ezartzeko aukera desberdinak baloratu, beste ikastetxe batzuetan erabiltzen ari diren aplikazioak edota merkatuan dauden software desberdinei buruzko iritziak jasoz.

Deskriptorea	Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2026/06/01
Adierazlea	Mota
Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa egiteko erabiliko den irakaslearen koaderno digitala.	Bai/Ez
Badago egutegi bat, ikastetxean koaderno digitala ezartzeko.	Bai/Ez
	Helmuga
	BAI
	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
INIKa-ren arduradurekin bildu	Bilera	IKT arduraduna/ Zuzendaritza	2025/09/30	Detektatua
Beste ikastetxe batzuekin harremanetan jarri	Berritzegunea	IKT arduraduna/ Zuzendaritza	2025/12/31	Detektatua
Zuzendaritzaren beharrak/nahiak jaso	Dokumentua	IKT arduraduna/ Zuzendaritza	2025/12/31	Detektatua
Koaderno Digitala proba pilotu moduan erabiltzeko prest dagoen irakasle talde bat sortu	Irakasleak	IKT arduraduna	2026/12/31	Detektatua
Irakasle taldeak egindako balorazioa jaso eta erabaki bat hartu	Dokumentua	IKT arduraduna/ Zuzendaritza	2026/06/01	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

GP I Irakasle zein administrazioako langileen beharretara egokitutako formakuntza plan bat diseinatzea, barne zein kanpoko formatzaileekin, gaitasun digitalean modu eraginkorrean laguntzeko.

Deskriptorea	Epea
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketa premiekin	2024/06/21
Adierazlea	Mota
Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasleentzat, hainbat interes pedagogiko duten tresna digitalen eta webguneen erabilerari buruz.	Bai/Ez
Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasle-taldearentzat, ezagutza hobetzeko eta ikaskuntza-ingurune birtualetako hainbat tresna digital integratzeko.	Bai/Ez
Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaskuntza-prozesuan integratzeko, irakasle-taldeak antzemandako premien arabera.	Bai/Ez
	Helmuga
	Bai
	Bai
	Bai

Ikastetxean sartu berri diren irakasleentzako tresna eta aplikazio normalizatuen urteko oinarritzko prestakuntza-plan bat diseinatzea eta ezartzea.	Bai/Ez	Bai
---	--------	-----

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen beharrak jaso	Inkesta/bilerak	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea, Berrikuntza Arduraduna	2024/03/31	Detektatua
Administrazaioko langileen beharrak jaso	Bilerak	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea, Berrikuntza Arduraduna	2024/03/31	Detektatua
Zuzendaritzaren beharrak jaso	Bilerak	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea, Berrikuntza Arduraduna	2024/03/31	Detektatua
Berritzegunearen gomendioak jaso	Bilerak	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea, Berrikuntza Arduraduna	2024/03/31	Detektatua
Beharrei erantzuteko formakuntza egutegi bat diseinatu	Egutegia	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea	2024/05/31	Detektatua
Formakuntza plana idatzi	Plana	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea	2024/06/21	Detektatua
Irakasle berrientzako formakuntza saioa/tutorialak eskura jarri	Formakuntza plana/Harrera plana	IKT arduraduna	2024/06/21	Detektatua
Familia (berrientzako) INIKA/IKASGUNEA eta beste aplikazio batzuen formakuntza antolatu	Formakuntza	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea, Zuzendaritza	2024/06/21	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua			
EJ I Ebaluazio prozesuan erabil daitezkeen tresna digital desberdinen ezagutza sustatzea, tresna horien adibide eta azalpenak jasoko dituen gune bat sortuz, ebaluazio prozesua errazteko			
Deskriptorea	Epea		
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2024/06/21		
Adierazlea	Mota	Helmuga	
Ikasgaien % 60tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuari buruzko autoerreflexioa egin dezaten.	Ehunekotan	60	
Ikasgaien % 40tan, ikasleek produktu digitalen ebidentzien portafolioa erabiltzen dute irakatsi eta ikasteko eta ebaluatzeke prozesuetan.	Ehunekotan	40	
Hezkuntza-maila guztietako ikasleen produkzioetarako errubrikak komunak adostu ditu	Ehunekotan	60	
Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren teknologia digitalak agertzen dira.	Ehunekotan	100	

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasgai eta maila bakoitzean teknologia digitalekin zer elementu ebalua daitezkeen zehaztu	Programazioak, Curriculum Dekretua, Estrategia Digitalaren dokumentua	Mintegi buruak, IKT arduraduna	2024/03/29	Detektatua
Ebaluatzen diren tresna/erramienta digitalen biltegi bat sortu: Errubrikak, feedback-a, portfolioak...	Drive	IKT arduraduna, Batzorde digitala	2024/03/29	Detektatua
Ikasleek beraien autoebaluazioa egiteko tresna/erramientak sortu	Drive	IKT arduraduna, Batzorde Digitala	2024/06/21	Detektatua

Helburua

EJ 2 Programazioetan gaitasun digitala ebaluatzen diren irizpideak txertatzea, arlo eta ikasgai bakoitzera moldatuz, ikasleei gaitasun digitala eskuratzen laguntzeko.

Deskriptorea	Epea
EJ 3.1 Ikaskuntzaren analisia estrategikotzat hartzen da	2024/06/21

Adierazlea	Mota	Helmuga
Hezkuntza-maila bakoitzeko ikasleen gaitasun digitala ebaluatzen diren irizpideak ezarri ditu, arlo/ikasgai bakoitza kontuan hartuta.	Ehunekotan	100
Hezkuntza-maila guztietako ikasleen produkzioetarako errubrikak komunak adostu ditu	Ehunekotan	40

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeko Curriculum proiektuan eta estrategia digitalean jasotako mailaz- mailakako konpetentzia digitalaren garapena kontuan hartuz, programazioetan konpetentzia digitala ebaluatzen diren irizpideen atala eguneratzea	Programazioak, Ikastetxeko estrategia digitala, Curriculum proiektua	IKT arduraduna, Mintegi buruak	2024/06/21	Detektatua
Maila bakoitzean konpetentzia digitala ebaluatzen diren errubrikak sortu	Drive	IKT arduraduna	2024/03/29	Detektatua

EC Edukiak eta curriculumua

Helburua

EC 1 Baliabideen biltegiak sortzea, mintegika eta mailaka, antolatuta, ahal den neurrian Hezkuntzarako Baliabide Irekien irizpideak jarraituz, edozein irakaslek berrerabiltzeko aukera izateko.

Deskriptorea	Epea
EC 1.2 Edukiaren biltegiak zabalki eta modu eraginkorrean erabiltzen dira	2026/06/19

Adierazlea	Mota	Helmuga
Departamentuak/mailek/zikloek, hilean behin gutxienez, eduki, jarduera, adibide eta/edo hezkuntza-baliabide digital berriak sartzen dituzte lineako ikaskuntza-ingurunean.	Ehunekotan	%60
Departamentuak/mailek/zikloek lan-prozedura bat eta egutegi bat dituzte ezarrita, lineako ikaskuntzako ingurune digitalari jarduera-eduki berriak, adibideak eta hezkuntza-baliabideak emateko.	Bai/Ez	Bai
Unitate didaktikoak garatu dira, ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren printzipioekin bat datozen jarduera pertsonalizatuak eta beharrian desberdinetara egokituak biltzen dituztenak.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Lanen egile eskubideei buruzko lege araudiaren laburpen dokumentua irakasleen eskura jarri.	Dokumentua	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea	2024/03/31	Detektatua
Baliabide didaktiko irekiak erabiltze aldera egile eskubideen eta lizentzien zitazioa zein izango den adostu eta gida idatzi	Dokumentua	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea	2024/03/31	Detektatua
Baliabideen biltegiaren edukiaren egitura sortu eta edukiak txertatzeko prozedura sortu.	Dokumentua	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea	2024/06/21	Detektatua
Datuen babesa, nortasun digitala, zibersegurtasuna, sare sozialen erabilera... buruzko UD-ak sortu/bildu tutoretza saioetan erabiltzeko	Drive	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea	2025/03/31	Detektatua
Diziplinarteko proiektuen garapena bultzatzeko ikas-egoerak sortu (STEAM proiektuan oinarritutakoak adibidez)	Drive	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea, Irakasleria	2026/06/19	Detektatua
IDU printzipioekin bat datozen baliabideen ereduak sortu	Drive	IKT arduraduna/ Digitalizazio batzordea, Irakasleria	2025/12/19	Detektatua

Helburua

EC 2 Eduki digitalen sorkuntza ikasleen ikaskuntza prozesuaren parte bilakatzea, beraien sormena sustatzeko eta ikaskuntza aberasteko, aniztasuna kontuan hartuz.

Deskriptorea	Epea
EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia	2025/06/20
Adierazlea	Mota
Curriculum-arloen/ikasgaien % 60ean, gutxienez, ikasleek eduki eta baliabide digitalak sortzen dituzte hezkuntza-maila guztietan, eta ikastetxeko biltegi komunean gordetzen dira.	Ehunekotan
	60

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen edukien biltegiaren egitura sortu eta edukiak txertatzeko prozedura sortu.	Drive	IKT arduraduna, Digitalizazio batzordea	2025/06/20	Detektatua
Programazioetan ikasleek eduki digitalak sortzeko jarduerak txertatu	Programazioak, ICPa	Mintegiburuak	2025/03/31	Detektatua

Helburua

EC 3 Ikastetxearen curriculum-proiektua eguneratzea ikasleen kompetentzia digitala garatzeko ibilbidea eta kompetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak jasotzeko, ikasleen irteera-profilean oinarritutako curriculum-proiektu bat izateko.

Deskriptorea	Epea
EC 2.1 Irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza beste era batera antolatzen da eredu integratuagoak sortzeko	2025/06/20
Adierazlea	Mota
Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea eta hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak jasotzen ditu.	Bai/Ez
Ikastetxearen curriculum-proiektuan, arlo edo ikasgai desberdinak garatzean, gaitasun digitalaren garapenarekin zerikusia duten alderdiak jasotzen dira.	Bai/Ez
	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen irteera profila kontuan hartuz, ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea eta hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideekin ICPa eguneratu behar den baloratu.	Programazioak, ICPa	Zuzendaritza, IKT arduraduna, Berrikuntza Arduraduna	2025/06/20	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua			
EN 1 Ikastetxearen komunikazio estrategia definitu, webgunearen erabilera eta funtzionalitatea areagotuz, bi noranzkoko komunikazioa indartzeko.			
Deskriptorea			Epea
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita			2026/06/19
Adierazlea	Mota	Helmuga	
Ikastetxeak ikastetxeko komunikazio-plan bat garatu du, informazio- eta komunikazio-prozesuak garatzeko, zentroaren webgunean eta sare sozialetan.	Bai/Ez	Bai	
Hezkuntza-eduki digitalak dituen ikastetxearen web-orria eguneratzeko protokoloa definitu du.	Bai/Ez	Bai	

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasturte bakoitzeko edukia eta planteamendu akademikoa familiei helarazteko modu/bide egokiena zein den aztertu	Bilera	IKT arduraduna, Zuzendaritza	2025/11/31	Detektatua
Ikasleen ikasketa-prozesuaren dinamikaren eta bilakaeraren berri emateko modu egokiena zein den aztertu (Adibidez, buletinen edukia zein izan behar den)	Bilera	IKT arduraduna, Zuzendaritza, Orientazio mintegia	2025/12/19	Detektatua
Ikastetxearen egunerokotasunaren berri emateko (ikasleek egiten dituzten jarduerak barne) modu egokiena zein den aztertu	Bilera	IKT arduraduna, Zuzendaritza	2025/12/19	Detektatua
Webgunean txertatu daitezkeen alderdiak zehaztu: Familia gunean, orientazioko gunean...	Bilera	IKT arduraduna, Zuzendaritza, Orientazio mintegia	2025/12/19	Detektatua
Estilo liburua sortu	Dokumentua	IKT arduraduna	2026/03/31	Detektatua
Sareetan ikastetxearen nortasuna definitzeko irizpideak eta arduradunak ezarri	Bilera	IKT arduraduna, Zuzendaritza	2026/03/31	Detektatua
Familiak ikastetxearekin komunikatzeko bide egokienak zentzuk diren aztertu eta jakinarazi.	Bilera	IKT arduraduna, Zuzendaritza	2026/03/31	Detektatua
Komunikazio plana idatzi	Dokumentua	IKT arduraduna	2026/06/19	Detektatua

Helburua

EN 2 Erakunde arteko, beste ikastetxe batzuekiko eta barneko irakasleen arteko elkarlana bultzatzea ikaskuntza-esperientziak aberasteko eta ezagutzak trukatzeko, horretarako antoltzen diren jardunaldietan parte hartuz eta informazioa trukatzeko tresnak erabiliz eta uneak sortuz.

Deskriptorea	Epea	
EN 3.1 Ezagutza elkarleen bidez trukatzeko konpromisoa agerikoa da	2026/06/19	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxeak eTwinning proiekturen batean parte hartzeko plangintza egin du	Bai/Ez	Bai
Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko tresna eta uneak sortu dira.	Bai/Ez	Bai
Ikastetxeak eremu digitalean inguruko ikastetxeekin esperientziak trukatzeko jardunaldietan parte hartu du	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Erasmus+ eta Etwinning bezelako proiektuetan parte hartzeko plangintza egin	Dokumentua	Zuzendaritza, Berrikuntza Arduraduna	2025/12/19	Detektatua
Beste ikastetxe eta erakundeekin elkarlanerako kontaktuak planifikatu	Bilerak	Zuzendaritza, Berrikuntza Arduraduna	2026/03/31	Detektatua
Ikastetxe barruko elkarlana sustatzeko uneak antolatu	Bilerak	Zuzendaritza, Berrikuntza Arduraduna	2026/06/19	Detektatua

AZ Azpiegiturak**Helburua**

AZ 1 IKT-Premia azpiegituren erabilera eta prozedurak jasoko dituen dokumentu bat sortu, baliabide horien mantenimendua eta erabilgarritasuna ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea	2025/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabide digitalak kudeatzeko eta mantentzeko gida baten barruan, eta bertan jasotzen da gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko protokoloa.	Bai/Ez	Bai
Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko protokoloa jasotzen da.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Matxura eta inzidentzien berri emateko prozedura eta plataforma eguneratu	Drive	Premia-IKT arduraduna	2025/06/20	Detektatua
Ikastetxeko inbentario bat sortu	Drive	Premia-IKT arduraduna	2025/06/20	Detektatua
Gailu/baliabideen mailegutza-erreserbarako protokolo bat sortu	Dokumentua	Premia-IKT arduraduna	2025/06/20	Detektatua
Irakasleen Harrera planean Premia eta IKT azpiegitura eta erabileren prozedurak txertatu	Dokumentua	Premia-IKT arduraduna	2024/12/20	Detektatua

Helburua		
AZ 2 Ikasle-Familien arrakala digitala arintzen lagunduko duen protokolo bat ezarri, aholkularitza teknikoa eta gailuen mailegutzarako laguntza eskainiz.		
Deskriptorea	Epea	
AZ 2.5 Ezberdintasun eta inklusio digitalarekin erlazioaturiko arriskuei heltzen zaie	2025/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxeak beharrezko protokolo bat du baliabide teknologikoetarako sarbidean ahulak diren ikasleak identifikatzeko eta egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleek jasaten dituzten desberdintasunak arintzeko beharrezko neurriak hartzeko.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Baliabide digitalen erabileran ahulak diren ikasle/familiak identifikatzeko protokolo bat sortu	Dokumentua	Zuzendaritza, IKT arduraduna, Orientazio mintegia	2024/12/20	Detektatua
Aurrez-aurrekoa ez den irakaskuntzan sor daitezkeen beharrei aurre egiteko plan bat sortu	Dokumentua	IKT arduraduna, digitalizazio Batzordea	2025/06/20	Detektatua
Administrazio eta erakunde desberdinekin harremanetan jarri familia ahulek gailuen konponketetarako (asegurua), lizentzia digitalen erosketetarako...izan ditzaketen behar ekonomikoei aurre egiten laguntzeko	Bilerak	Zuzendaritza, IKT arduraduna, Orientazio mintegia	2025/06/20	Detektatua



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	LG 1 Ikastetxearen estrategia digitala jasoko duen plan bat sortzea, batzorde digitala eta zuzendaritzaren lidertzarekin datozen urteetako ikastetxearen digitalizazioaren norabidea argi izateko.	2024-06-21	Ikastetxeko proiektu digitala jasotzen duen dokumentua sortuta dago (Bai/Ez)	IKT arduradunak		
II	II 1 Programazioetan gaitasun digitala lantzeko edukiak txertatzea, edukiak sortzeko, informazioa modu kritikoan erabiltzeko eta arriskuei aurre egiteko jarduerak txertatuz, ikasleei gaitasun digitala eskuratzen laguntzeko.	2024-06-21	Programazioen 100% ean ikasleen gaitasun digitalaren irizpideak txertatu dira (Bai/ Ez)	IKT arduradunak		
II	II 2 Internetek eta gailu digitalen erabilerak suposatzen duten arriskuei aurre egiteko plan bat ezartzea, ikasleen jarrera kritikoa garatuz eta Internet erabiltzerakoan ahalduntzeko gomendioak eskainiz, beraien nortasunaren garapena bultzatuz... ikasleek pairatu ditzaketen kalte emozionalak, indarkeria egoerak eta abarrekoak ekidetzen saiatzeko.	2024-06-21	Tutoretza plana eguneratu da (Bai/Ez)	IKT arduradunak		
II	II 3 Irakaslearen eguneroko lana errazteko koaderno digitalaren erabilera ezartzeko aukera desberdinak baloratu, beste ikastetxe batzuetan erabiltzen ari diren aplikazioak edota merkatuan dauden software desberdinei buruzko iritziak jasoz.	2026-06-01	Koaderno digitala ezartzeko erabakia hartu du ikastetxeak (Bai/Ez)	IKT arduradunak		
GP	GP I Irakasle zein administrazio langileen beharretara egokitutako formakuntza plan bat diseinatzea, barne zein kanpoko formatzaileekin, gaitasun digitalean modu eraginkorrean laguntzeko.	2024-06-21	Formakuntza plana idatzi da (Bai/Ez)	IKT arduraduna		

EJ	EJ 1 Ebaluazio prozesuan erabil daitezkeen tresna digital desberdinen ezagutza sustatzea, tresna horien adibide eta azalpenak jasoko dituen gune bat sortuz, ebaluazio prozesua errazteko	2024-06-21	Ebaluazio prozesuetan teknologia digitalak erabiltzen dira (Ehunekotan)	IKT arduraduna		
EJ	EJ 2 Programazioetan gaitasun digitala ebaluatzen irizpideak txertatzea, arlo eta ikasgai bakoitzera moldatuz, ikasleei gaitasun digitala eskuratzen laguntzeko.	2024-06-21	Programazioetan gaitasun digitala ebaluatzen da (Ehunekotan)	IKT arduraduna		
EC	EC 1 Baliabideen biltegiak sortzea, mintegika eta mailaka, antolatuta, ahal den neurrian Hezkuntzarako Baliabide Irekien irizpideak jarraituz, edozein irakaslek berrerabiltzeko aukera izateko.	2025-06-15	Baliabideen biltegiak sortuta daude eta erabiltzen dira. (Bai/Ez)	IKT arduraduna		
EC	EC 2 Eduki digitalen sorkuntza ikasleen ikaskuntza prozesuaren parte bilakatzea, beraien sormena sustatzeko eta ikaskuntza aberasteko, aniztasuna kontuan hartuz.	2025-06-15	Programazioetan ikasleek eduki digitalak sortzeko jarduerak daude. (Ehunekotan) Ikasleen edukia digitalak gordetzeko biltegi bat dago (Bai/Ez)	IKT arduraduna		
EC	EC 3 Ikastetxearen curriculum-proiektua eguneratzea ikasleen konpetentzia digitala garatzeko ibilbidea eta konpetentzia digitala ebaluatzen irizpideak jasotzeko, ikasleen irteera- profileen oinarritutako curriculum-proiektu bat izateko.	2025-06-15	ICPa eguneratu behar den baloratu. (Bai/Ez)	Zuzendaritza IKT arduraduna		
EN	EN 1 Ikastetxearen komunikazio estrategia definitu, webgunearen erabilera eta funtzionalitatea areagotuz, bi noranzkoko komunikazioa indartzeko.	2025-11-30	Ikastetxeko komunikazio plana idatzi da. (Bai/Ez)	IKT arduraduna		

EN	EN 2 Erakunde arteko, beste ikastetxe batzuekiko eta barneko irakasleen arteko elkarlana bultzatzea ikaskuntza-esperientziak aberasteko eta ezagutzak trukatzeko, horretarako antoltzen diren jardunaldietan parte hartuz eta informazioa trukatzeko tresnak erabiliz eta uneak sortuz.	2026-06-19	Ikastetxeak eTwinning proiekturen batean parte hartzeko plangintza egin du. (Bai/Ez) kastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko tresna eta uneak sortu dira (Bai/Ez) Ikastetxeak eremu digitalean inguruko ikastetxeekin esperientziak trukatzeko jardunaldietan parte hartu du (Bai/Ez)	IKT arduraduna		
AZ	Z 1 IKT-Premia azpiegituren erabilera eta prozedurak jasoko dituen dokumentu bat sortu, baliabide horien mantenimendua eta erabilgarritasuna ahalik eta eraginkorra izan dadin.	2025-06-20	Ikastetxeak dokumentu bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabide digitalak kudeatzeko eta mantentzeko gida baten barruan, eta bertan jasotzen da gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko protokoloa (Bai/Ez) Irakasleen harrera- dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko protokoloa jasotzen da (Bai/Ez)	IKT arduraduna Premia arduraduna		
AZ	AZ 2 Ikasle-Familien arrakala digitala arintzen lagunduko duen protokolo bat ezarri, aholkularitza teknikoa eta gailuen mailegutzarako laguntza eskainiz.	2025-06-20	Ikastetxeak beharrezko protokolo bat du baliabide teknologikoetarako sarbidean ahulak diren ikasleak identifikatzeko eta egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleek jasaten dituzten desberdintasunak arintzeko beharrezko neurriak hartzeko. (Bai/Ez)	IKT arduraduna		